

Estropezuka



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Estropezu egin dut mizpiretan. *Mespilus germanica* mizpiraren peskizan nabilela, batekin eta bestearekin hitz egiten, pantailetan ez dauden hitzak irakurtzen, jo eta estropezu ez dut ba egin! "Otsalizar eta mizpira minkatzak, agotzak ontzen ditu" esaera etorri zait muturraren aurrera. Eta burua ketan. Zenbat hede tira egiteko. Hasteko, otsalizarra (*Sorbus aucuparia*) eta mizpira batera. Biak gure elikaduraren ipularrera baztertuta ditugun fruituak. Makina bat aho gozatu zuten milaka urtean. Minkatza izan eta ahoa gozatu?, nola liteke? Mikatza da, bai, niretzat ere gozagarriena. Baina esaeran minkatzak beste zer bait adierazi nahi duela iruditzen zait; minkatza: gustagarri ez dena, mina, zakarra... Egunerokorako nahitaezkoak ziren sagarra –*Malus x domestica*, edari ia bakarra ziren pitarra eta sagardoa egiteko—eta antzekoen aldean, eta lantzearen eta auke-ratzearen eta zaintzearen ondorioz gero eta handiago ziren fruituen aldean –udare (Pyrus communis), mertxika (Prunus persica), gerezia (Prunus avium edo P. cerasus)— behar-beharrezkoak ez eta ttiki "itsusiak" ziren fruitu horiek, hutsaren hurrengoa. Minkatza. Frantsesek ere hala erabiltzen dute: "Mizpirak" esaten



Otsalizarra (*Sorbus aucuparia*).

KRZYSZTOF P. JASIUTOWICZ-CC BY SA

badizute zakurraren ipurdia edo zakurraren putza adierazten dizute. Bestetik, arbola horiek adarrak sastrakatsuak, nahas-mahas mordoilotsuan dituzte, ez etxekotutako beste fruitu arbola horien adar samur eta bigunak. Minkatza. Eta agotza, zer da agotza? Nik hiru agotz ikusten ditut esaera horretan: arotza, aihotza eta ahotza. Arotzak bi arbola horien zura gogor eta basatia leundu dezake. Ondu. Aihotzak bere adarje sastrakatsua soildu eta menderatu dezake. Ondu. Ahotzak, aldiz, bere gainean fruitu gordin, gogor eta heldugabea umatu

egingo du. Ondu. Ni azken horren aldekoa, otsalizarren eta mizpirondoaren fruitu minkatzak ahotz gainean zabaldua ontzen dira. Ahotza laboreen lorearen lasto fin-fina da. Ahotzetan jartzea belar ondutan zabaltzea bezala da.

Estropezu egin dut mizpirarekin Durangoko Azokan ere. Bi emakumek mizpiraz galde egin didate: noiz bildu, nola jaso... Eta Elorrioko Arauneta auzoko Osintxueta baserriko Jesus Beitia hitzak erakustera etorri zitzaidan. Tartezen zen "xemeikoa", txakur txiki bat ere balio ez duena, hutsaren hurrengoa. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Ezpelaz egindako hesi luze bat dugu etxean eta azken hilabeteetan gaixorik dago. Inguruko landare-denda batean esan ziguten gaitz hori oso zabaldua dagoe-la eta *Belthirul* izeneko hauts batzuk saldu zizkiguten. Hiru aldiz eman diogu azken hiru hilabeteetan, baina berdintsu jarraitzen du. Zerbait gehiago egin daiteke? Eskerririk asko. Felipe Aramendi (Hernani)

Kaixo Felipe. Ezpelean daukazuen hori tximeleta bat da: *Cydalima perspectalis*. Ikaragarritzko izurrite txarra da, Asia aldetik guregana iritsia. Har berde-beltza da kalte egiten duena. Gero krisalidan, armiarma-sare tankerako batean itxi eta tximeleta bihurtzen da. *Bacillus thuringiensis kurstaki* da bera tratatzeko botika. Hau da, zeuk aipatu duzun *Belthirul*. Tratamendu ekologikoa da, ez die inolako kalterik sortzen ez landareei, ez lurrari ezta guri ere. Tratatu ahal duzun azkarren, 8-10 eguneroko. Landarea ondo busti, saiatu alde guztietatik bustitzen.

Hurrengo urtean udaberrietik adi egon eta lehen harra ikusi orduko tratatzen hasi. Hasieratik eginez gero kalteak asko murrizten dira.